



Bi neska talde, Etxebarria Parkean, hiruko saskibaloian jokatzen. Jon URBE | FOKU

PARKEKO TXIMINIAN SASKIRATU NAHI?

Imanol CARRILLO

Bilboko Etxebarria Parkeak hiruko saskibaloiko hainbat txapelketa hartu ditu asteburuan zehar. Eguraldia lagun, ehunka gazte zein heldu aritu dira eguzkipean izerdia bota eta lagunak egiten.

1943. urtean eraikitako Etxebarria Parkeko dorrea edo tximinia Bilboko iragan industrialaren ikono bat da. 25 metroko altuera du eta gaur egun oraindik ere tinko jarraitzen du. Bada, iragan berri den asteburu honetan, hiruko saskibaloiko partida eta txapelketa ugari antolatu dira Bizkaiko hiriburuko topagune ezagunetan. Helduen kasuan, adibidez, mundu osoko hamabost talde aritu dira gizonezkoen PRO edo Quest mailan lehiatzen –munduko hirugarren mailarik onena–. Baina ez hori

bakarririk; izan ere, gurgil-aulkiko saskibaloiko Espainiako Txapelketa ere jokatu da, eta bertan Bidaideak etxeko taldea gailendu da, Amiab Albacete, CD Ilunion, Ekony Gran Canaria, Basketmi Ferrol edo Gasteizko Zuzenak bezalako taldeen aurrean. Eguraldia lagun, gazteenek ere saskibaloiarekin gozatzeko aukera ederra izan dute. Galdetu bestela ondoko irudiko neskei: baloia Etxebarria Parkeko tximinian saskiratu nahiko balute bezala dihardute. Lortuko al zuten helburua?